



DONOSTIAKO IRU DAMATXO...

XABIER

Len ezaguna bagendun abesti au, orain eleizako ordulariak goiz ordua ematearekin batera bere eresia kanpantoretik zear, erri guztiari zabaltzen dio. Errenderiarrok, abesti onen berri gutxi genitun eta ara nondik, nere lagun Xexilio Etxeberriak, eskuratu ditan Jose Artetxe (G. B.) zanak, egindako liburu batean gai onetzaz azaldu zuana.

Bertatik, laburtu eta euskeratu ditut, edestitxo onen gaiak guk ere jakin dezagun nondik datorren abesti onen izaera.

Etxeberria, iru andereñoak, Mari Koro, Maria Rosario eta Maria Aranzazu, ogeita amazapi, ogeita amasei, eta ogeita amabost urtekoak, zortzietako meza ondoren etxeraten dira. Bidean, D. Balero apaizari eta berdin D. Feliziano osagillari, egun-on otz xamar eta jaramonik gabekoa egiten diete; ogi goxo batzuek erosten dituzte beren gosaria egiteko eta Narrika kaleko 7garren sotoan sartzen dira, etxe artan bertan bizi bai dira.

Etxera sartu baño lenago, Leona, beren neskamiak atea zabaltzen die esanaz gizon bat dagola beren zai gela nagusian.

Irurak arriturik, goiza baida oraindik nor dan galdetzen diote, eta neskamiak erantzuten die, iru aizpekin itzegin nai duen gudalburu bat dala. Une ortan, irurak, ispillu aurrean bereziki apaintzen dira, bere aurrean itxura ederrarekin azaltzearren.

Jauregi Kapitana, mardul eta egokia, zutitzen da, eta andereñoak, irurak batera, beren jaramonak egiten dizkate, bere aurrean ondo azaldu naiean. Azkenik, Mari Korok, ausardituaz, zertara etorri dan galdetezen dio, eta zertan lagundu dezaiokean.

Bere aurkespena eginaz, onela dio: Donato Jauregi ta Gurpide naiz, Gudaritza gogozkoan Kapitana. Donostian jaioa naiz eta bertako erreketaren ondoren, nere gurasoak Zaragoza aldera irten ziran, eta ni gero bertan ezkondu

nintzan. Guk, berriz—dio Mari Korok—, une artan ez genduen alde egin. gure aitak jabetza txiki bat eta Errenderiyan denda txiki bat zeuskan, eta jostun bezela lan egitera bearturik arkitu giñan; gure aita ondamen artan gelditu egin zan etxeak konpontzen, eta ortan ari zala, orma bat bere gainera erorita zakar artean illa gelditu zan. Obe izango genduan danok Zaragoza alde egin ba genduen.

Guda Donostiara iritxi ez dedin, eta guztioi laguntzeko biar, Ingles gudatalde bat dator, dio Jauregik.

—Ingelesak berriro? Ez al zaie aztu len egin zutena? dio Mari Korok.

—Andereñoak: politikaren eskutapenak ez dira nereztat ezagunak. Ea bada nere eginkizunaren berri ematera nator. Ingeles gudatalde buruzagiaren agindua da, zuen etxean oietako gudalburu bateri ostatu eman bear diozutela, eta ondorengoak sendi nagusi artean ostatu izango dute. Iru aizpak ezezko gogorra ematen diote Kapitanari. Ingelesakin ez dutela ezer nai, diote, bañan azkenik, naiz gogo onez ez izan arren, Jauregiren aginduari baiezkua ematen diote.

Thomas Warring du izena etxe ontan artu bear dezutenak. Ogeita bi urte ditu eta irakaslea da.

Au entzunda beren gogoia zerbait aldatzen da; irakaslea eta gaztea... baditeke katolikoa izatea. Iru aizpak erabakitzen dute etxeko etzaleku bereziena (Gotzaina deritzaina) beretzat izan dedilla.

Jantzi tokitik eskuz landutako izarak, tapaki ta koltxa usai-gozotuak, irtetzen dituzte eta une batean gertu gelditzen da etzanlekua, bada ez bada bere etorrera aurreratzen badu ere. Bertan liburu eta aldizkari batzuek ipintzen dizkiote, beren izkuntza ezagutzea baleike eta zer edo zer berri arkituko ditu lerro aietan: Ingelesak 1813an Zubietako batzarrean zer egin zuten, gero 1815go. Dagonillaren 31an, bi urte len izandako ondamena oroiturik, nolako illeta berezia egin zan, eta abar...

Iru aizpak oraindik neskatz arkitzen ziran eta beren bizi modua oso erkitarra zan, urtean beingo irteera Arantzazuko Amarengana izaten zan beren ibillaldi guzia.

Arratsalde artan Errenderitik beren dendatxotik zetoztela, Leona, neskamia, sotoan zai zegon. Iritxi da eta bere gelan dago esan zien. Leonak, erbestearra zegon gelako atea apalki jo zuan eta bera azaldu zan. Irurak biotz ikututa gelditu ziran gizon prestu, ille gorri, me xamar arrek, iru andereñoen aurrean makurturik, agurtu zituanean.

Bereala galdezka asi zitzaizkien, nungoa zan, erderaz egiten al zuan, eta abar.

Erderazko irakaslea naiz ikastola batean. Nere ama Iruñakoa zan eta nere bigarren abizena Urtubi da, erantzun zien eta mesedez barka zaidazute etxe ontako pakea galtzera natorrelako. Etxeko jan gela berezian apaldu zuten, Bruselasko mai zapi eta Parisko mai ontziak ipiñiaz: beren alkar-izketa oso atsegiña izandu zan eta beren begiratuak elkarri, pelota lekuan pelota batetik bestera dijoan eran, ibilli ziran.

Otz zegoen eta andereñoak edozein gitzakirekin maietik altxatzen ziran. bañan beti bi gelditzen ziran izketan jarraitzeko. San Bizenteko elizan bederlatziak entzun ziran, erakabi zuten izketaldea amaitzea obe izango zala, berandu zala eta errosarioa oraindik esan bearrean zirala, eta ez zekitela Inglaterran orrelako oiturik ba zan. Bera katolikoa zala eta bere etxean ere egiten zala, erantzun zien. Otoitz egin zuten eta elkarri gau onak emauaz, oieratu ziran.

Thomas bere oiean sartu zanean, karraxi bat egiteko zorian jarri zan. Obeto esateko ez bat, baizik iru karraxi. Oiaran iru lekutan arkitu bai zituana sua zeriotea, iru ontzi begogarri! Berak alderatu, eta lo gozoan gelditu zan.

Urrengo goizean euri asko ari zuan. Bederlatziak inguruan dei egin zioten bere zai zeudela jangelan. Bertan gertatuta zegoen gosaria ikusita, bere guda taldeako ainbat ba zegoela esan zien.

Amarrak aldean Errenderira eramaten zituana zaldi gurdian sartu ondoren, Mari Korok galdera au egin zien bere aizpei:

—Zer iruditu zaizue gure bizi-laguna?

—Guri?... psh..., eta, zuri?

—Neri?... zueiri bezela... psh...

Elkarri ziria sartu naican zebiltzan azaldu gaberik beren iritzia; bañan konturatzen ziran irurei atsegin zitzaiea. gogoraturik berarekin egindako izketaldiak su bazterrean eta aurrerantzean egingo zituztenak...

Errenderira joateari utzi egin zioten, beren dendan ordezko bat utzirik; une guziak gutxiak iruditzen zitzaizkien bizi-laguna al zuten ondoren zaintzeko. Laister gudara joan bear zuala eta bertan bear zituana gaineko jantziak, ta gainera bere eskuz egin bear zituzten beroki eta galtzerdi artillezkoak prestatu bear ziralako.

Elkarrekin erabiltzen zituzten eguneroko goraberan guziak, bañan bereziena, jan kontua izaten zan, janari aldakorra izan zezan.

Eta oraindik geiago egiten zuten ingeles arreatatik. Beren artean ez sinistekoa, beñere egin ez zuten gauza: kafieren ondoren kopatxo bat patar edaten zuten.

Lenengo aldiz, gizon bateri atsegin ematearren, edan zuten, eta gainera pentsa zezala emen ere erbesteko oiturak egiten zirala. Egia da Etxeberriatarrak egunero beren kopatxoa artzen zutela bazkari ondoren, eta bein batez Thomasen urtebetetzea zalata, eskua geitxo joanik, irurak zeru atsegin batean zeudela irudipen bat izandu zuten. Bañan esan bearra da, bere tragotxoaren aurretik, Mari Korok, bere errege aulkian zegoen Jesusen Biotzaren irudiari begiak jasoaz esaten ziola: Zure baimenarekin Jauna... eta Jesusen erantzun ixillarekin, geiegikeria barkatua zegon. Eta onela zoriotsu bizi ziran, irurak buruzagi bikañarekin ibillaldi ugariak egiñaz, gero ta apañago jazten ziralarik. Jai eta dantza izaten zan etxe berezietara eramaten zuten, bañan beti berak gazteenak azaltzen ziranetara. Baita ere eleizara ta erri jaietara, bañan atsegiñen arkitzen ziran lekua beren etxea zan, jolas kaltegabeko eta asmakizunak azalduaz.

Goiz batean, eleizatik etxeratu ziran, Thomas gaztea beren zai zegon. Banoa, gudara goaz esan zien. Mari Korori txorabioa egin zitzaion itz aiek entzundakoan, beste bieri ere berdintsu. Benetan lirain eta polita bai zegon mutilla jantzi aiekin; ez zan jakin zer biotz indarrez ta Thomasek iru aizpak lastandu egin zituana, bañan berak lastan aieri ez zieten erantzunik eman, itz bat esateko trebetasunik ez bai zeukaten.

Bazkaria bukatutakoan (obeto esateko ez bazkaria), Leonak apalki galdetu zien: Patarra ekarriko al det? Bai, ekarri. Beñere baño geiago, eta jakiña bazkal ondoko lo bearrean arkitu ziran.

Bazkal ondoko lo aietako batean zegoztela, berri tamala ekarri zieten: Thomas bala bat buruan sarturik, illa izan zala; Trinitateko kalean sortutako gaxotegiko gela batean beste batzuekin batean zegola, eta Urgulleko illerri txikira eramango zutela bertan obiratzeri.

Etxeberriatarrak beltzez jantzi ziran, aspaldi batean beren gorputzak estutzen zituzten dolu jantzi aiekin, eta bera ikustera joan ziran.

Esan ez bazieten ez zuten ezagutuko ura Thomas zala, bañan ondo begiratuaz bere aboa eta ezpailñ me aietan oso ezagun zan, eta ezpail orretan ezarri zuten lenengo aldiz gizon bateri emandako lastana.

Itxasora begira dagoen bere illobia, berak bizi izan ziran bitartean, ez zan beñere larrosik gabe egon, beti iru larrosa, bildu berriak margo illarekin.

Etxeberriatarrei gertaera arren orioigarri ona gelditu zitzaien, eta ordu ezkeroz, patar botilla zabalik arkitzen omen zan bere artian.

Bateon batek jakin zituan iru aizpa auen goraberak eta ain ezagun zaizkigun bertsoak jarri zizkien:

*Donostiako iru damatxo
Errenderian dendari,
plantxan ta josten ba dakite bañan
ardua edaten obeki
eta kriskitin, kraskitin, arrosa, krabeliñ,
ardua edaten obeki.*

Edestitxo au izan zan bertsoari gaia eman ziona, eta abetik abera, jarraitu du urteen zear.

Bear bada bertso auek ez dute gertaera egizkorik azaltzen eta iru andereño aien ez bearrak eta naigabeak izkutuan geldituak dira. Dana dela abesteko egiñak ziran eta ala izan dira Etxeberria aizperi ateratakoak.

Ingeles illerrian Thomas gudalburua non obiratua izan zan aztarrenik ez dago. Baditeke illarri batean igartzea iru argi kutsu, laburrak bakoitzak larrosa baten itzala gorde al izatekoa...

Errenderin, Garagarrillak 10